**ERABAKIA, 2021eko uztailaren 14koa Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, Horren bidez, MATEMATIKA SAILArako F 716 Saileko idazkaria lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia ebatzi da.**

## GERTAKARIAK

**Lehenengoa**.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2021eko ekainaren 23ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

**Bigarrena**.-Gerentearen erabakiaren bidez, 2021eko uztailaren 7koa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

**Hirugarrena**.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa**.- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea (2015eko urriaren 2an EAOn argitaratua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).
- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA).
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

**Bigarrena**.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko dena hartutako 2021eko urtarrilaren 28ko errektorearen erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAAn), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

**Hirugarrena**.- Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZPko Funtzionarien Plangintza Batzordeak 2017ko uztailaren 18an hartutako akordioa izango da. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2017ko irailaren 28ko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2018ko maiatzaren 21eko EHAAn).

**Laugarrena**.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

## ERABAKI DU

**Lehenengoa**: Deialdi honetako lanpostua zerbitzu betekizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

**Bigarrena**.- Esleipena 2021eko uztailaren 20ko ondorio dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2017ko uztailaren 18ko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

**Hirugarrena**.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak.

**Laugarrena**.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Admnistratzaileei, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

**Bosgarrena**.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2021eko uztailaren 14an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2021eko urtarrilaren 28ko erabakia (2021eko otsailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA

GERENTZIA GERENCIA

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Miren Lorea Bilbao Arteche

# I. ERANSKINA ZERBITZU BETEKIZUNA 2021/06/23

| | |
|---|---|
| Esleipenduna: | ALKORTA LEKUMBERRI, Nekane |
| Lanpostuaren Izena: | Saileko idazkaria |
| Lanaldia: | Arautua |
| Eref.: | F 716 |
| Zenbatgarrena: | 62 |
| Maila: | 18 |
| Taldea: | C/D |
| Eskala: | Administraria/Administrari laguntzailea |
| H.E.: | 2; 1994ko urtarrilaren 31 |
| Langunea: | MATEMATIKA SAILA |
| Campus: | BIZKAIA |
| BE: | |
| Ondorio data: | 2021eko uztailaren 20a |

## II. ERANSKINA

PUNTUAZIOEN ZERRENDA - ZERBITZU BETEKIZUNA - 2021eko ekainaren 23ko DEIALDIA

*1817* | F 716 | Saileko idazkaria | Hor. 62 | HE 2.94/1 | MATEMATIKA SAILA

| ADJ | DEITURAK. Izena | ORD. | PUNT. GUZT. | ANTZIN. | | EMANDAKO ZERBITZUAK GUZT. | F = Taldea | | L ≈ Taldea | | F & L≠Tald | | EHUn ZERB. | | F = Taldea | | L ≈ Taldea | | F & L≠Tald | | BESTE ADM. | | GRADUA | | | TITUL. | HIZK. | EUSKARA | | ELKAR. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Urteak | Punt. | | Hill. | Puntuak | Hill. | Puntuak | Hill. | Puntuak | Hill. | Puntuak | Hill. | Puntuak | Hill. | Puntuak | Hill. | Puntuak | Hill. | Puntuak | G | <> | Punt. | Puntos | Puntos | PL | Ptos. | Puntos |
| c) Deitutako lanpostuaren beheragoko hurrengo talde eta eskalako karreradun funtzionarioak. | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| ADJ | ALKORTA LECUMBERRI, NEKANE | | 28,2000 | 30 | 13,5 | 12,70 | 75 | 7,50 | 2 | 0,20 | 287 | 5,00 | 364 | 12,70 | | | | | | | | | 16 | -2 | 1 | 0,75 | 0,25 | 2 | 0 | |
| | MIYAR ARRIEN, BEATRIZ | | 21,8000 | 26 | 11,7 | 7,60 | 26 | 2,60 | | | 297 | 5,00 | 323 | 7,60 | | | | | | | | | 15 | -3 | 0,5 | 2,00 | | 2 | 0 | |

**ADJ - Esleipenduna** **R- Uko egin dio prozesuari** **O- Beste deialdiko lanpostua aukeratu du** **AO - Beste deialdi batean esleipenduna**